



## Eman hegoak euskarari



# 1963an jaiotako euskal idazleak 60 urte betetzear

JON KORTAZAR



**I**az artikulu honen lehen aldia idatzi nuen. Gogora ekarri nuen Ainara Gorostitzuk 2003ko Santiago egunean, uztailaren 25ean eta 'Berria' egunkarian, argitaratu zuen artikulu bat non euskal idazleen uzta oparo bat aldarrikatu zuen. Horretarako, lau urtean, 1961etik 1964ra, jaiotako idazleak hartu zituen hizpide.

Artikuluak, izenetik hasita, '63ko Uzta Oparoa', 1963an jaiotako idazleak hartu zituen nagusi, nahiz eta muga pixka bat zabaldu. Eta horrela idatzi genuen iaz 1962ko idazleei buruzko artikula.

Promesa batekin bukatu nuen artikulu hura: «1962an jaiotako idazleek 60 urte bete edo beteko dituzte aurten. Dena dela, kazetariak bere begirada 1963an jaiotakoengan jarri zuen. Datoren urtean izango dugu zer esanik... berriro ere». Heldu da ho-

rretarako ueña.

### 1963ko uzta

Iazko aipamenean Ainara Gorostitzuk aipaturikoak baino ez nituen kontuan izan. Laster hartu zidaten kargua. Eta hurrengo egunetan telefonoz (edo Whatsapppe, jada ez dut gogoan) helarazi zidaten zenbait idazle falta zirela: Miren Agur Meabe, batez ere. Iñigo Aranbarri ere aipatu zidaten, baina hor deia egin zidana zebilen oker, 1963koa baita azkoitiarra.

Aurten horrelakorik ez gertatzeko, Ainara Gorostitzuren zerrenda hartu dut kontuan, eta Zubitegi maiteak ere laguntza eskaini dit bere bilatzaile aurretatuaren bidez.

Ainara Gorostitzuren esanetan, 63an jaiotakoak 18 idazle aipagarri dira. Haien artean daude, besteak beste: Aitor Arana, Iñigo Aranbarri, Pako Aristi, Jon Arretxe, Yolanda Arrieta, Luis

Berrizbeitia, Joseba Gabilondo, Inazio Mujika, Jokin Muñoz, Juanjo Olasagarre, Andoni Tolosa eta Juan Luis Zabala.

Zubitegiak, berriz, urte horretan jaiotako 32 idazleren izenak zerrendatu ditu, eta, aipatu nahi dut, bakarra urte hartan zendutakoa: Katalina Eleizegi (1889-1963), gerra aurrean antzerki lanen egilea.

### Letren aroa

Iaz zenbait arrazoi agertu bagenitu ere, horrelako agerpen handiak zer pentsa ematen du oraindik. Kausa bat, arrazoi bat, zalantzarik gabe, zaletasunaren bidean daude. Alde batetik, irakaskuntza dago. Eskolan, edo ikastolan gehien kasuan, euskaraz hazitako idazleak dira, hizkuntza trabarik gabe ikasi zutenak, osotasunez eta erraztasunez. Beraz, hizkuntza batua ongi menderatua zuten, eta zalantza gutxi erabilpenean. Aurreko

askok gure hutsuneak genituen hizkuntzarekin moldatzeko orduan. Eta 63ko askok, gainera, Euskal Filologia estudiatu eta landu zuten aurretik ikasitakoa. Mendiguren Elizegik, adibidez, hauxe dio artikuluak: «Filologia-karreraren asko irakurtzen da».

Bigarren arrazoia, nire uste apalean, zaletasunarekin lotu behar dugu: Euskarak ez ezik, Letrek ere, oraindik, prestigioa zuten. Eta erreferente literarioak bizirik ziren, nahi izanez gero, ezagutzeko moduan. Gure klasiko modernoak egiten ari ziren eta letren giroa bizi-bizi zegoen. Sistema sortzen ari zen. Eta bazegoen atmosfera berezi bat non ikasi eta nori jarraitu adierazteko. Bazegoen zer imitatu, zer ukatu, nondik jo.

### Argitalpenak

Neurri batean, erraza zen argitaratzea. Iñigo Aranbarriren hitzetan: «Guk zorte handia eduki genuen: Obra handi bat eduki gabe argitaratzeko aukera eman ziguten». Sistema sendotzen ari zen. Aurreko idazleak lanen argitalpenean traiektoria erakusten ari ziren, argitaletxeak beren bidea indartzen. Horrela, 1963ko idazleek beren lanak sarien bidez erakusten zituzten (Arana,

Arrieta, Aristi, Zabala), eta zenbaitetan salmentan arrakasta lortu zuten, Pako Aristiren kasuan bezala.

Argitaletxeek gain, plazan agertzeko modu berezia eskaintzen zuten literatur aldizkariak, eta hainbat zeuden garai hartan idazle gazteei ateak zabaltzeko prest.

### Zabalkundea

Aipaturiko zerrenda kontuan hartuz, traiektoria luzeko idazleak dira, ez dira obra bakarrekin geratu. Baten bat bada obra bakarrekoa (Javier Gorostiza, Gotzon Plaza) 32ko zerrenda horretan, baina askoz gehiago dira lanez emankorrak, eta gure memorian mantendu direnak, literatur ibilbide oparoarekin.

Oso lan desberdinak eman dituzte, literatura jasoaren eta zabalaren arteko mugak lausotu ziren garaikoak direlako. Haur literatura jorratu dute, eta literatur genero jakinak landu dituzte, krimen literatura barne. Zerrendako zenbait idazle profesionalizatu egin dira: Jon Arretxe edo Yolanda Arrietaren kasua da.

Idazle talde izena erabili dute beti, eta ez belaunaldiarena, oso joera desberdineko idazleak izan direlako beren ibilbidean zehar.

## Orainez oinazez

JON MARTIN-ETXEBESTE

Loreen itzalak jasotzen ditu liburu honen azalak eta mamiak. Edertasunaren alde iluna eta iluntasunaren alde ederra seinatu ditu Karmele Mitxelenak ipuin bilduma honetan. Pertsonaien biktima posizioa maisuki deskribatzen duen liburu honek Donostia Hiriko Kutxa Literatura saria jaso zuen 2022an. Giza harremanen konplexutasunak sortzen duen sufrimenduari buruzko liburua da. Sedukzioa eta zaintza, babesa eta mehatxua, botereduna eta mendekoa kontraste handiz proiektatzen dira orri orri. Idazleak atmosfera psikologiko aberatsa eraikitzen du, eta irakurlea pertsonaien barne-munduan murgilarazten, kasik itolarria sentitzera. Irakurleari edo oinazearen sorrarazle denari mintzo zaio ipuin bakoitza, mamiak interpelatzen ditu zuzenean.

Oinazearen dekalogoia osatu du idazleak ipuinez ipuin. Lehen ipuinak liburuaren tonua eta gaitegia

definituko du: Alzheimerrak pipitutako pertsona baten zaintzak familiako konstelazioa birformulatuko du eta etxeko emakume gazteak hartu beharko du beregain etxeko ardura eta karga. Segidan etorriko dira elkarbizitza gatazkatsuek eragindako zenbait buru-gaixotasun eta erabaki: desamodioak eragindako depresioa, jazarpenak sortutako ikara, eta fobia soziala. Sexu abusuak jasaten dituen nerabearen infernua eta aita galdu duen alabaren dolua agertzen dira liburuaren amaieran. Bikote harremanen degradazioa setatsuki ageri da: Haurrik mundura ekarri ezinak bikote harremanean sortzen duen arrakala



**HARAGIZKO MAMIAK**  
KARMELE MITXELENA  
Elkar. 148 orr.  
16 euro

la deskribatzen du ipuinetako batean. 'Beheko sua' izenekoan zaintzaren deshumanizazioa leialki marrazten du idazleak. Ipuin honetako pertsonaiaren desirak konplexuak eta kontrajarriak dira eta ziurrenik berau da liburuko biribilena. Familiako instituziotik haratago, gerrak desplazatutako familien ibilaldi etsitua deskribatzen da eta etxeko garbitzailearen gutxiespena eta menpekotasuna. Itzaletan ikusten dakitenek gizarte patriarkalaren kritika sakona topatuko dute.

## Ongi etorri errutinara

ARANTXA URRETABIZKAIA



**J**oan zaizkigu Eguberrietako festak, zorionez batzuentzat, tamalez gehiengoarentzat. Bukatu dira, abuztuarekin batera, urtean etenaldi orokorra gauzatzen duten egunak. Horrek esan nahi du itzuli garela normaltasunera, baldin eta normaltasunik balego.

Etenaldi horietan badira lagunartean, familiaren barruan edo hedabideetan aipa ezin daitezkeen kontuak edo, gutxienez, aipatzen badituzu ezinbestean kalaka-emaile gisa hartua izango zara, festa-zapuztaile garratza izango zara. Nori bururatzen zaio zoriontsua behar duen afariaren mahai gainean gai hori jartzea, kontu hori aipatzea.

Hori bai, errealitatea ez da horregatik aldatuko. Etxegabetzeak ez dira bukatuko, matxismoak emakumeak erailtzen

jarraituko du, astean bat baino gehiago, askok eta askok berogailurik gabe pasatuko dituzte egunak eta gauak, sareetako jazarpena ez da itzaliko, eskolari hartu dion beldurra ez zaio desagertuko haurrari, ezta gaixo dagoenari min egiten dion hori ezabatuko.

Munduak bere horretan jarraituko du, begiak itxita ere hor egongo da ikusi nahi ez duguna. Esnatzerakoan, dinosauroa lehengo lekuan egongo da burua lehengo lepotik duela. Lotan gauden bitartean, gozokeriak gaixotuko gaitu, diabeteraino, egiari zor dioguna ahaztuta edonori festa zoriontsuak opatu dizkiogu, are handik egun gutxitara arerio izaten jarraituko duenari.

Itzuli gara normaltasunera, itzuli gara errutinara, batzuetan pisutsu, besteetan aringarri zaizkigun ohituretara, are ohikeriara. Ez du ospe handirik errutinak, askotan leporatzen zaio maitasunaren edo adiskidetasunaren akabera, baina errutinarik gabe zailagoa litzateke bizitza, errutinak finkatutako ohituren orde hamaika erabaki hartu beharko genukeelako egunean zehar.

Ez dakit zer pentsatuko edo sentituko dudun hemendik hilabete gutxira, baina, oraingoan, gozo nago normaltasunean.

## SALDUENAK

FIKZIOA

### 1 Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

### 2 M. Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

### 3 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

### 4 Desertuan behatxuloa

Anjel Lertxundi. Alberdania

EZ FIKZIOA

### 1 Gaueko eztabidak

Agustin Arrieta. Erein

### 2 Barabaroak eta zibilizatuak

Ibai Atutxa. Txalaparta

### 3 Axularren gerizapean

Kepa Altonaga. Pamiela

### 4 Sorginak

Toti Martinez de Lezea. Erein